



Jose Miguel de Barandiaran Fundazioa On Jose Miguel Barandiaranek eta Eusko Ikaskuntzak sortu zuten **1988ko ekainean**.

Sorrera

XX. mendearen bigarren hamarkadan, kultura eta zientzia munduko hainbat pertsona ospetsuk sustatu eta sortu zuten Eusko Ikaskuntza, eta Euskal Herriaren nortasuna leheneratzea da haren helbururik behinena.

Eusko Ikaskuntzaren sorreran jadanik, On Jose Migel Barandiaran erakundearen zuzendaritzan izan zen, Eusko Ikaskuntzaren Batzorde Iraunkorreko kidea izanik 1921etik 1936ra arte.

Bestalde, bere ekimen pertsonalak zein ikerketa etnografikoak nola historiaurreari buruzkoak Eusko Ikaskuntzaren baitan garatu zituen bai eta berak zuzenduriko agerkarietan (Eusko Folklore Materiales y Cuestionarios eta Eusko Folklore Urtekaria), biak Eusko Ikaskuntzak argitaratuak.

Gerra Zibilak 1936an Eusko Ikaskuntzaren jarduerak etenik, Iparraldeko erbestean zientzia jarduerak sustatu zituen, hala nola Eusko Ikaskuntzaren Nazioarteko Elkarte eta Instituto de Humanidades IKUSKA (Sección de Antropología); Eusko Jakintza izenburuko Eusko Ikaskuntzaren aldizkariaren argitalpena eta Eusko Ikaskuntzaren VII. eta VIII. Kongresuak.

Jarduera horiek guztiak gerraurrean Eusko Ikaskuntzak gauzatu zituenen jarraipena ziren, asmoz eta espirituz.

Eusko Ikaskuntzaren azken Batzorde Iraunkorreko kide gisa, Eusko Ikaskuntza abiarazi zuen Batzorde horretako gainerako kideekin batera, hots, Justo Garate Arriola jn., Aingeru Irigaray Irigaray jn., Manuel Irujo Ollo jn., Manuel Lekuona Echabeguren jn. eta Joaquin Yrizar Barnova jn. Hartarako, 1977an behin-behineko Batzorde Iraunkorra sortu zuten, eta horren lehendakaritza bere gain hartzeko ardura eman zioten.

Oñatin, 1978ko irailean egindako Eusko Ikaskuntzaren Batzar Nagusian Eusko Ikaskuntzako Lehendakari izendatu eta kargu horretarako berriz hautatu zuten 1983an eta 1987an.



Eusko Ikaskuntzak ere adierazi zuen, On Jose Migel Barandiaran Ayerberekin batera, kultura fundazio pribatu bat sortzen laguntzeko nahia, eta halakoari José Miguel de Barandiaran Fundazioa izena ematea hark buruturiko zientzia lan eskergaren aitormenez.

Helburuak

- 1.- On Jose Miguel Barandiaranen lan zabala bildu, bai lan argitaratua bai argitaragabea, izkribu guztien orijinalak katalogatu eta artxibatuz.
- 2.- Bere zientzi produkzioaren argitalpen kritiko zaindua bultzatu, adituen batzorde egokiak sortuz.
- 3.- Bere bizitza, pentsakizun eta zientzia eta kultuaganako aportazioa aztertu, obra nazio eta nazioarte mailan zabalduz.
- 4.- Jose Miguel Barandiaranek bere bizitza osoan zehar hasi eta jarraitu zuen Euskal Herriko Atlas Etnografikoaren ikerketa lanak jarraitu. Honetarako, Baskoniako lurralde desberdinetan berak sorturiko eta proiektu honetan lanean diharduten ETNIKER zenbait talde baliabidez hornituz eta bultzatuz.
- 5.- Euskal Herria, Baskonia mailan berak landu dituen gaietan ikerketa egitarau eta beka bultzatu, ondokoak izanik landuriko gaiak: Prehistoria, Arkeologia, Antropologia eta Etnologia.
- 6.- Ikastaldi, mintegi, hitzaldi edo antzeko ekintzak sortu, eta Fundazioak bultzaturiko ikerketa eta azterketen emaitzak argitaratu.
- 7.- Erakundeari bere helburuak betetzen lagunduko dion beste edozein bide.